

Asisko gutuna

2025eko uztaila

1. printzipioa. Eguneroko bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala 201. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bakean bizitzea gizakiaren helburu sakon eta egiazkoenetako bat da. Zertaz ari gara bakean bizitzea esaten dugunean?

Gogoetarako gaia

Bakean bizi

Badugu eginkizuna edo betebeharra zintzo betetzeak ematen duen bakea. Kontzientziak eskatzen zidana egin dudanean, egin behar nuena eta egin behar nuen moduan egin dudanean sortzen den poztasun hori. Neure buruarekin eta besteekin bakean geratzen naiz.

Beste bake mota bat ere badago, halako barne-distantzia batera iristen naizenean. Bakea bizi dut nire baitan, nahiz eta kanpotik arazoak egon eta nik neuk ere tentsioak bizi izan bizitzak eta bizikidetzak sortzen dituen arazoengatik. Oreka psikologiko bat aurkitzen dudanean, kanpoko eta barruko gorabeherak ez didate nire barruaren kontzientzia kentzen.

Barne oreka hutsetik haratago doan bakea ere bizi dezaket. Izan ere, neure buruarekin leial izanik, neure buruaz eta besteez ikusten dudana haratago bizi naiz. Barrutik kanpora hazten ari naiz, eta gero eta barrurago gainera. Ni naizen guztia bateratzen duen bakea da. Horrek dena niaren kontzientzia batetik bizitzen lagun-

tzen du, kanpotik ematen ez didatena, ez bizitzako une ezberdinetan sentitzen dudanak ere, ezta nigan hautematen dudanak ere, baizik eta hori guztia baino lehenagokoa da.

Eta bada beste bake bat, ez nigan sortua, baizik eta ematen zaidana. Jesusengan uste osoa izateak ematen didana, bere hitzean, bere Aitarenean maitasunean uste osoa izateak. Ez da ezer teorikoa, eta, agian, ez dit barruko arazorik edo segurtasun faltik konponduko. Beste edozeren gainetik maitatua naizela dakit. Bake honek ez nau mundutik urruntzen, bere baitan mantentzen nau, inoiz ez bezala, baina dena fedean oinarrituz biziarazten dit. Baldintzarik gabe maitatua izateak ematen duen bakea da.

Bakea bizitzeko modu ezberdinak ez daude elkarren aurka, baina bakoitza iturri ezberdinetatik sortua da: kontzientzia morala edo etikoa, oreka psikologikoa, niaren berezitasuna, Jesusen Jainkoarengan sinestea.

Bibliako pasartea: Is 52, 7-10

Bai ederra mendi gainetan albistaria etortzen ikustea! Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen, askapena aldarrikatzen. Sioni diotso: «Errege da zure Jainkoa!» Zure begiraleak deia-darka! Poz-oihu dagite denek, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen. Ekin denok poz-oihuka, Jerusalemgo horma eroriok, Jaunak bere herria kontsolatu baitu, Jerusalem askatu. Bere jainkozko indar paregabea azaldu du Jaunak nazio guztien aurrean. Mundu-bazter guztiek ikusiko dute gure Jainkoaren garaipena.

Frantziskotar espiritualtasuna

Frantzisko dohatsua, San Damian elizaren konpontze lana amaitu ondoren, ermitauek erara jantzia zebilen, eskuan makila, oinetakoak eta gerrian larruzko uhala zeramala. Baina egun batez, mezakoan, Kristok bere ikasleak predikatzen bidaltzean esaten diena entzun zuen: alegia, ez eramateko urrerik, ez zilarrik, ez poltsarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez makilarik, ez oinetakorik, ezta soinekorik aldatzeko ere. Hau guztia argiago ulertu zuen gero, apaizak azaldu zionean. Orduan, esan ezin ahalako pozez beterik, esan zuen: «Hauxe da nire indar guztiaz bete nahi dudana».

Eta entzun zuen guztia oroimenean jasorik, pozez ahalegintzen da entzundakoa betetzen. Berehalaxe, bi-koiztuta zeuzkan gauzak utzi eta ordutik aurrera ez zuen erabiltzen ez makilarik, ez oinetakorik, ez poltsarik eta ez zakutorik. Beretzat tunika zirtzil eta latz bat atondu zuen, eta uhala kendu eta soka bat hartu zuen gerrikotzat. Bere bihotzeko arreta guztia jarri zuen grazia berriaren eskakizunak ulertzen eta praktikan jartzen. Jainkoak argituta, Ebanjelioaren perfekzioa hots egiten eta guztiei penitentzia predikatzen hasi zen xalotasunez. Haren hitzak ez ziren hutsalak eta barrengarriak, Espiritu Santuaren indarrez beteak baizik, bihotzaren barne muinetaraino sartzen zirenak eta entzuleak biziki txunditzen zituztenak.

Izan ere, gerora berak aitortu zuenez, Jaunaren errebelazioz ikasi zuen agur hau: «Jaunak eman diezazula bakea». Horregatik, bere sermoi guztietan, predikuaeren hasieran, bake agurra egiten zion herriari. Eta espiritua ez beterik, bakea iragartzen hasi zen eta salbamena hots egiten; eta haren aholku osasungarriek esker, Kristoren etsai eta salbamen bidetik urruti ziren asko eta asko, egiazko bakean elkartzen ziren.

(Cf. HLaLe 25-26)

Otoitza

Jesus, zu zara gure Bakea.
Gaurko egunean goseak, gerrak,
txikien menpekotasunak ilundua den egunean,
Zugana irekiak gaude.
Bakea gudan, bakea guztiontzat!
Erakutsiezaguzu bakearen sekretua,
gure bizitza bake proiektu bat izan dadin.
Zure Izpirituak gidaturik,
guztion artean bakearen kultura bat eraiki dezagun.

Ezingo gara inoiz zoriontsu izan
elkarren kontra.
Gizadiaren gau bakoitzean,
egizu gutako bakoitza bakearen zaindari.
Gizadiaren egunsenti bakoitzean,
erakutsiezaguzu bakearen agurraz elkar bisitatzen.
Gizadiaren krisi bakoitzean, armagabetu gaitzazu,
maitasunaren hizkuntza hitz egiten jarrai dezagun.

Gutuneko azken hitzak

"Ezin izango duzu bakea aurkitu bizitza saiestuz"(Michael Cunningham, estatubatuar idazlea)

2025ko uztaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Mt 8,23-27	8. Mt 9,32-38	15. Mt 11,20-24	22. Mt 12,46-50	29. Mt 13,36-43
2. Mt 8,28-34	9. Mt 10,1-7	16. Mt 11,25-27	23. Jn 15,1-8	30. Mt 13,44-46
3. Jn 20,24-29	10. Mt 10,7-15	17. Mt 11,28-30	24. Mt 13,10-17	31. Mt 13,47-53
4. Mt 9,9-13	11. Mt 19,27-29	18. Mt 12,1-8	25. Mt 20,20-28	
5. Mt 9,14-17	12. Mt 10,24-33	19. Mt 12,14-21	26. Mt 13,24-30	
6. Mt 11,25-30	13. Mt 13,1-23	20. Mt 13,24-43	27. Mt 13,44-52	
7. Mt 9,18-26	14. Mt 10,34-11,1	21. Mt 12,38-42	28. Mt 13,31-35	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Uztaileko otoitza hilaren
31ean izango da